

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Kalimotxoa latan ekoitzi eta merkaturatzeko, hainbat funtsezko baliabide behar dira.

Baliabide horiek proiektuaren funtzionamendu egokia eta bideragarritasuna bermatzen dute.

Baliabide fisikoen artean daude ekoizpenerako instalazioak (edo azpikontratazioa), lata eta ontziratze materiala, biltegiatzea eta garraioa. Baliabide intelektualak dira errezeta, marka-irudia eta etiketen diseinua. Giza baliabideei dagokienez, ekoizpena, salmentak eta logistika kudeatuko dituzten pertsonak behar dira, eta finantza-baliabideak hasierako inbertsioari aurre egiteko erabiliko dira.